

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Bildutakoak:

Patxi Ibaguren Etxeberria	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik
Pepe Iparraguirre Balda	Andoingo Udaletik
Iratxe Begiristain Otegi	Usurbilgo Udaletik
Jorge Segurado Iriondo	Urnietako Udaletik
Nuria Fernandez Castrillo	Lasarte-Oriako Udaletik
Xabier Urdangarin Lasa	Astigarragako Udaletik

Akta Zenbakia
00000012

Eguna
2024/10/14

Iraupena

-

Asistentzia teknikoa:

Julen Mungia Gorrotxategi	Idazkari-Kontuhartzailea
Helene del Río Laboa	Zuzendaria

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Parte hartzen du ere

Gai Zerrenda

- | | |
|---|--|
| 1.- 2024/09/30(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada. | 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 30/09/2024. |
| 2.- Tokiko Enplegu Ekintzetan (2024-2025) kontratatutako pertsonalaren soldataren irizpidea aldatzeari buruz berri ematea | 2.- Informar sobre la modificación del criterio salarial del personal contratado en las Acciones de Empleo Local (2024-2025) |
| 3.- Kreditu aldaketa (gehikuntza) Tokiko Enplegu Ekintzetan (2024-2025) 175.000€ gehitzeko | 3.- Modificación de créditos (créditos adicionales) para incrementar en 175.000€ las Acciones de Empleo Local (2024-2025) |
| 4.- Kreditu Konpromezua onartzea Hazilan+ (2024-2029) programarentzako kreditua bermatzeko | 4.- Aprobar los créditos de compromiso para asegurar créditos para el programa Hazilan+ (2024-2029) |
| 5.- Lanpostuen Zerrendaren (LZ) eta Plantilla Organikoaren aldaketaren proposamena aurkeztea (LZ zuzentzea, Plantilla zuzentzea eta pertsonal | 5.- Presentar la propuesta para la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) y Plantilla Orgánica (corregir la RPT, corregir la Plantilla y la |

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

- | | |
|---|--|
| berriaren kontratazioa) | incorporación del nuevo personal) |
| 6.- Onartzea Udalen eta Mankomunitatearen artean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmena TEE 2024-2025 programa garatzeko | 6.- Aprobare el convenio de colaboración a firmar entre la Mancomunidad y los Ayuntamientos para llevar a cabo el programa ALE 2024-2025 |
| 7.- Berri ematea Mankomunitateko langileen ordezkaria aukeratzeko hauteskundeak martxan jarriko direla | 7.- Informar de que se pondrán en marcha las elecciones para elegir el representante de los trabajadores (delegado de personal) de la Mancomunidad |
| 8.- Galdera, erregu eta proposamenak. | 8.- Ruegos, preguntas y propuestas. |

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- 2024/09/30(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2024/09/30 datako batzaraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du. Lasarte-Oriako ordezkariak esan du akta horretan, "bildutakoak" atalean, Lasarte-Oriako alkatea agertzen dela Nuria Fernandez beharrean. Aldaketa hori egingo dela esan du idazkari-kontuhartzaileak eta horrekin, ahoz batez, Gobernu Batzordeak ontzat eman du.

2.- Tokiko Enplegu Ekintzetan (2024-2025) kontratatutako pertsonalaren soldataren irizpidea aldatzeari buruz berri ematea

Zuzendariak enplegu eta prestakuntza teknikariak egin zuen txostena helarazi die bilerako partehartzaile guztiei, eta ondoren hor agertutakoa ahoz azaldu du. Azken finean, gertatu dena 2024ko apirilaren 23an egin zen Enplegu Mahai Teknikoan Tokiko Enplegu Ekintzen programan, zalantza/kezka bat azaleratu zen, laburbilduz, peoien eta ofizialen kasuan udalerrin ezberdinetan soldata ezberdinak zeudela lan eskaintza berdin baterako, eta horrek ezberdintasunak sortzen zituela. Plazaratu zen arazoaren aurrean Udal teknikariek soluzio bat jartzea planteatzen zuten eta, beraz, operario eta peoientzat soldata gutxieneko bat ezartzea erabaki zen, lan baldintzak duintzeko helburuarekin.

Horrela izanda, Mankomunitateak udal guztien peoi eta ofizialen ordainsariak jaso zituen eta gutxieneko bat finkatu zen, eskualde ikuspegi batetik eta ordainsari egoki batera

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

begira proposatzen zen gutxieneko langile-kostu hori. Gutxieneko hori 17.375€tan ezarri zen peoientzat eta 19.652,12€ ofizialentzat.

Hala ere, 2024ko urriaren 1ean, peioen lan-eskaintza prestatzerako momentuan udal teknikari batzuk neurri honen zailtasuna plazaratu zuten, Udal bakoitzeko politiken kontra joan zitekeelako.

Ondorioz, hasiera batean adostu ziren soldata-irizpide bateratu horiekin atzera egin beharra ikusi da. Ondorioz, neurri hauek proposatzen dira:

- Lan eskaintzan udalerrri guztietatik soldatarik baxuena ezarri da oinarri gisa, langileek espektatiba faltsurik ez egiteko.
- Hitzarmenetako kopurua adostutako gutxieneko horren baitan kalkulatu bada ere, likidazioa egiterako orduan hori baino baxuagoa den gastua izan duten udalek diferentzia hori itzuli beharko dute.

Hortaz, azalpen hauek entzunda, bilerako ordezkari guztiek ontzat eman dute aldaketa hau eta inork ez du ezer gehitu.

3.- Kreditu aldaketa (gehikuntza) Tokiko Enplegu Ekintzetan (2024-2025) 175.000€ gehitzeko

Idazkari-Kontuhartzaileak esan du kreditu aldaketa hau aspalditik zegoela hitzartuta. 2024ko apirilean TEEak landu zirenean, aurrekontuak aurkeztean ikusi zen arazo bera plazaratu zen, ez zegoela nahikoa diru egitasmoa aurrera eramateko. Beraz, TEEtarako nahikoa krediturik ez zegoela eta, partidara 175.000€ gehitzea proposatu eta adostu zen Diruzaintzako Geraketik. Eta hau da kreditu aldaketa honekin lortzen dena.

Urnietako ordezkariak galdetu du zenbatekoa den Diruzaintzako Gerakina eta Idazkari-Kontuhartzaileak erantzun dio hori garai hontan zehaztasunez jakitea zaila dela eta hori aurrekontua ixterakoan jakingo dela hobeto. Hala ere, gutxi gorabehera 630.000€ inguru daudela aurreratatu du.

Andoaingo ordezkariak galdetu du zenbateko horri kreditu aldaketa honi dagozkion 175.000€k kendu behar zaizkion eta idazkari kontuhartzaileak baietz erantzun dio.

Ordezkarri guztiak, aho batez, onartu dute kreditu aldaketa hau.

4.- Kreditu Konpromezua onartzea Hazilan+ (2024-2029) programarentzako kreditua bermatzeko

Idazkari-kontuhartzaileak esan du kreditu aldaketa honen helburua dela aurrekoan onartu zela HAZILAN+ programa, 2024. urtetik 2029ra iraungo duena, eta hainbat urtetarako

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

programa denez, programa horrek datozen urteetan eskatzen dituen kredituak konprometitzeko/gordetzeko helburua duela.

Urnietako ordezkariak galdetu du zergatik 2027. Urtean konprometitutako kreditua bikoitza den eta idazkari-kontuhartzaileak gehitu du HAZILAN+ko bi azpiprogramak bikoiztu egiten direlako urte horietan, hau da, 2027n LORPEN eta OSATU azpiprograma bat eman beharrean, bi emango direla bakoitzeko.

Denak, aho batez, onartu dute kreditu aldaketa hau.

5.- Lanpostuen Zerrendaren (LZ) eta Plantilla Organikoaren aldaketaren proposamena aurkeztea (LZ zuzentzea, Plantilla zuzentzea eta pertsonal berriaren kontratazioa)

Puntu honetan Lehendakariak galdetu die udal-ordezkariei ea norbaitek zalantzaren bat, galderaren bat edo iradokizunen bat duen.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du zalantza sortu zaiola aurrekarietan, izan ere, 3. puntuaren esaten da nabarmen murriztu dela kontratatutako beharrek langileen kopurua, baina bigarren puntuaren esaten dela 4 kontratu egitea proposatzen dela eta 3. puntuaren beste 4 egitea proposatzea dela (egia da, 3. puntuaren Turismo teknikaria kentzen dela).

Idazkari-kontuhartzaileak esan dio egia dela eta agian bere garaian aurkeztu ziren kontratazioen zenbaki batekin nahastu dela eta agian bat gutxiago izan beharko litzatekeela. Lasarte-Oriako ordezkariak gehitu du, hala ere, nahiz eta kontratazio bat jaitzi, ez zaiola murrizketa nabarmena iruditzen.

Bestalde, Urnietako ordezkariak galdetu du iraunkortasunarekin lotuta ea kontratu txiki bat daukagun ikerketak egiteko karbono aztarnari eta CO2ri buruz. Zuzendariak erantzun dio baietz. Azkenean, gu bidelagunak garela baina horrelako azterketa sakonak eta teknikoak egiteko profesionalengana jo behar dugu.

Bestalde, puntu honetarako bidalitako txostenen inguruan, Zuzendariak gehitu du datuak urriaren hasiera arte bildutakoak direla, eta, oraingoz Urnietan eta Lasarte-Oriako gehiago lan egin dela enpresen inguruan, adibidez, Andoainen baino, urte hasieran Andoaineko udal-teknikariarekin uztartu behar izan genuelako lana eta, azkenean, beraiek ibiltzen

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

zirelako gehiago Andoaineko enpresen atzetik. Beraz, datuak abenduan aztertzea osoagoa litzatekeela, Udal guztientzat ekitatiboagoa izango delako.

Idazkari-kontuhartzaileak gogoratu du puntu hau Batzar Nagusira eramango dela onartutzat emateko eta, horregatik, komeni dela orain eta hemen, Gobernu Batzarrean, puntu honen gaineko kezkak, zalantzak eta galderak egitea, gaia landuta eramateko Batzar Nagusira.

Lehendakariak gehitu du puntu honetan hainbat txosten (Zuzendariarena, juridikoa eta fiskalizaziokoa) bidali zaiela denei eta, hortaz, aintzat hartu dela Lasarte-Oriako udaleko ordezkariak udara baino lehen bidali zuen korreoan esandakoa, txosten hauen beharra aipatuz.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du berak bere kontuhartzailearekin hitz egin behar duela 1. kapituluko kreditu-kontsignazioari buruz, izan ere, berari beti esan omen diote hasieratik egon behar dela nahikoa kreditu eta nire txostenean, berriz, ez dela hori esaten. Idazkari-kontuhartzaileak gehitu du, labur azaltzearen fiskalizazio-txostenean agertzen dena, eskuarki, bertan jartzen duena dela nahikoa kreditu egon behar duela kapituluan benetan egikaritutako baldin bada gastua. Hau da, gure Mankomunitateak benetan badaki X Kontratazio egingo direla urte batean, bai egon behar duela Kontratazio horietarako nahikoa kreditu. Eta, edozer dela eta, urtean zehar hasieratik aurreikusia ez zegoen beste Kontratazio bat egiten bada, orduan, momentu horretako fiskalizazio-txostenean argi jarriko dela nahikoa krediturik dagoen edo ez. Azkenik, azpimarratzeko esan du Mankomunitate honetan, beste administrazio publikotan gertatzen den bezala, bere sorreratik, irizpide hau jarraitu duela, hau da, aurreko ekitaldietan ez dela nahikoa kreditu jarri Lanpostuen Zerrendan agertzen ziren postu guztiak betetzeko, izan ere, jakina zelako ez zirela denak batera egikaritutako.

Ondoren, Urnietako ordezkariak hartu du hitza eta, lehenik eta behin, eskerrak eman dizkio Zuzendariari berak aurreko batean eskatu zituen datuak emateagatik. Bestalde, galdetu du gaur egun lanean dauden langileen egonkortzea nola izango den eta idazkari-kontuhartzaileak erantzun dio aurten Lan Eskaintza Publikoa (LEP) aterako dela eta geroztik hiru urte izango ditugula LEP hori exekutatzeko (hautaketa-prozesuekin hasteko). Azkenik, Urnietako ordezkariak galdetu du ea badagoen kronogramaren bat planteatzen diren pertsonalaren kontratazioen gainean eta Lehendakariak aurreko bilera batean erabili genuen dokumentu bat atera dio. Hala ere, Zuzendariak gehitu du hori errebisatuko dugula eta, behar bada, eguneratuta helaraziko diegula.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Idazkari-Kontuhartzaileak galdetu die udal-ordezkariei ea nola ikusten duten gai hau eta ea erabakiren bat hartzeko moduan egongo liratekeen datorren bilerarako (aldaketarik ez badago, urriaren 28n izango dena). Urrietako ordezkariak esan du gai honekin internoki lanketan dabilzala eta espero duela datorren Gobernu Batzarrerako erabaki definitiboa ekartzea. Lasarte-Oriako ordezkariak berdina esan du.

6.- Onartzea Udalen eta Mankomunitatearen artean sinatu beharreko lankidetzahitzarmena TEE 2024-2025 programa garatzeko.

Lasarte-Oriako ordezkariak hartu du hitza eta aurreko ostiralean bidalitako emailean esandakoaz orain bileran azaleratu du. Bi gauzataz kexatu du:

- Prozedura aldetik ez zaio ondo iruditzen alkatei hitzarmena sinatzera bidaltzea, udal-teknikarien eta Gobernu Batzarreko aurretiko baimena eman gabe.
- Lasarte-Oriarentzat sinatzera bidali den hitzarmena ez dela lankidetzahitzarmena, baizik eta kudeaketa-agindua. Beraiek behin baino gehiagotan esan dute ez dutela beste kudeaketa-agindu bat sinatuko, Mankomunitatea sortuta dagoelako eta bere kabuz funtzionatu behar duelako, eta azpimarratu du hori bera esan dietela oraingo eta aurreko idazkariak. Horretaz gain, lankidetzahitzarmen bat kudeatzeko 40/2015 legeak, 50. Artikuluan, deskribatzen duen prozedura jarraitu izanaren dokumentuak eskatzen ditu.

Astigarragako ordezkariak hartu du hitza eta esan du, nahiz eta bera jurista ez izan, ez zaiola iruditzen sinatzeko daukagun hitzarmena kudeaketa-agindua denik, baizik eta lankidetzahitzarmena. Gainera, bere udal-idazkariarekin egiaztatu eta komentatu omen du gai hau eta berak ere horrela pentsatzen omen du. Azken finean, TEE programa egikaritzeko hitzarmena da, izan ere, LANBIDetik Mankomunitateak jasotzen du dirua, eta Mankomunitatea bera arduratzen da egin beharreko ia guztiaz (proiektua aurkezteaz LANBIDEn, beraiekin harremantzea eta beraiekin tramite-administratibo guztiak egiteaz, lan eskaintzak kudeatzeaz eta hautaketa-prozesuak egiteaz hautagaiekin, hautagai definitiboak aukeratzeaz eta justifikatzeaz, langileek jasoko duten formakuntza lortzea eta kudeatzea eta edozein gertaerari aurre egitea). Eginkizun bakarra da udalek egin behar dutena: langileen kontratazioa, baina beste aukerarik ez dagoelako, ezin dituelako Mankomunitateak kontratatu eta gero gainontzeko udalerrietan lanean jarri, izan ere, hori langileen legez kanpoko lagapena da. Beraz, udal-langileek egin beharreko gauza bakarra langileak altan ematea da eta hori ez du uste kudeaketa-agindu bat denik,

Lasarte-Oriako ordezkariak errepikatu du TEEen kudeaketa osoa Mankomunitateari dagokiola, Mankomunitatea sortuta dagoelako eta baliabideak dituelako eta beraien idazkariak uste dutelako kudeaketa-agindua dela eta ez lankidetzahitzarmena.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Idazkari-kontuhartzaileak hartu du hitza eta Lasarte-Oriako ordezkariak hasieran esan duenari erantzun dio:

- Prozedurari dagokionez, hitzarmena udal-teknikariek ontzat eman zutenean bidali zela udal bakoitzera, denboraz juxtu gabiltzanez, nahikoa denbora izan zezaten hitzarmen hori berrikuskatzeko eta, hala badagokio, iradokizunen bat egin zezaten, edo bestela sinatu zezaten. Hala ere, egia da ez dela itxaron Gobernu Batzarrak bilera honetan oniritzia ematea udaletara bidali aurretik. Bestalde, zuzenean alkateei bideratzeagatik hitzarmena arrazoitu du, horren atzean dagoen arrazoia dela sinatu behar duen pertsona Alkatea delako, eta hori egin baino lehen, pentsatzen genuela udal-barnean dagokien pertsonekin elkarbanatuko edo alderatuko zuela. Hala ere, ikusi dela prozedimendu honek ez duela behar bezala funtzionatzen eta horregatik, dagoeneko prozedimendua aldatzeko erabakia hartu dugula eta hemendik aurrera horrelako gaiak SIR bidez (erregistro elektronikoko bidez) bideratuko direla, eta horrela udal-bakoitzak beraien erregistro elektronikora iristerakoan emango dituela eman beharreko pausuak ezer sinatu aurretik. Hala ere, azpimarratu du inoiz ez dela izan gure asmoa alkateak sinatzea dokumentua inorekin partekatu eta alderatu gabe, baina, arazo hau konpontzeko irtenbidea bilatu diogula.
- Kudeaketa-aginduaren inguruan esan guztiz bat datorrela Astigarragako ordezkariak esandakoarekin. Batez ere, ez dugulako ulertzen gure eskumena den zerbait udal-bati egitea eskatzen diogunik, eraginkortasunarengatik edo baliabide tekniko faltarengatik. Azken finean, esan bezala, udalen eginkizun bakarra langileak kontratatzea besterik ez da, bestela langileen legez kanpoko lagapenean eroriko gara, ezin baitu gure langile batek beste udalerrri batean lan egin, beste udalerrri bateko ardurapean eta beraien esanetara egonda. Horren kontra, guk uste dugu administrazio publikoen arteko lankidetzak bat dela, LANBIDETik Mankomunitateak jasotzen duela dirua gerora udalei emateko beraien langileen kontratazioek egin ditzaten. Bestalde, eskatzen duen espediente helaraziko diela esan die eta behar badute beste txosten juridiko zehatz bat honen inguruan ere, hori egingo duela.

Zuzendariak gehitu du urriaren amaierako kontratatu beharko ditugula langileak, azaroaren hasieran hasiko baita EAGIrekin formakuntza, beraz, denbora juxtu gabiltza. Gogoan izan behar da kudeaketa-aginduz egikaritzuz behar bada espediente hau Plenotik pasa behar dela eta horrek prozedura asko luzatu dezakeela. Gehitu du urriaren 22n lehenengo filtroa pasa duten hautagaiekin elkarrizketak egingo ditugula.

Idazkari -kontuhartzaileak gehitu du Mankomunitatea hasi behar dela lanean, hau da, hautagaiak elkarrizketatzen, etab. Behin udalekin hitzarmena sinatuta dagoenean, eta ez lehenago. Beraz, hitzarmena sinatu ezean, ezingo garela hasi lanketan.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Zuzendariak egitasmoaren kronograma azaldu du, atzerapenei begira gerta daitezkeen ondorioak ezagutzeko: urriaren 22an azalpen orokorra, azaroaren 4ean formakuntza hasten da (datak ezin dira aldatu asko kostatu delako lekua eta formatzailea aurkitzea) eta tartean elkarriketak eta deiak egingo dira.

7.- Berri ematea Mankomunitateko langileen ordezkaria aukeratzeko hauteskondeak martxan jarriko direla

Idazkari-kontuhartzaileak berri eman die gure Mankomunitateak 6 langile baino gehiago dituenek, langileok erabaki dugula langileen ordezkaria aukeratzeko hauteskunde prozesua martxan jartzea. Pasa den urriaren 7an sartu genuen Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu sailean erregistroa eta Hauteskunde Mahaia 2024ko azaroaren 8n eratzea aurreikusia dagoela.

8.- Galderak, eskaerak eta proposamenak

- Datorren astelehenean irankortasun mahai politiko-teknikora deituak daudela gogorarazi du Zuzendariak, Andoainen.
- Lehen aukera. Zuzendariak azaldu du arazoak izaten ari garela LANBIDekin Lehen Aukera programaren bidez langile bat kontratatze Mankomunitate izaera daukagulako. Beraiekin eztabaidan gaude eta oraindik gaia ez da argitu (idatzi bat sartu dugu). Izan ere, Lehen Aukerako deialdiko ebazpenean, 4.1.b) artikuluan ezartzen da bertan parte hartzeko baldintzetako bat dela: “*b) Administrazio publiko batek edo gehiagok zuzenean edo zeharka % 50eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea*”. Hori gehiago enpresa publikoentzat jarria dagoela argudiatzen saiatzen ari gara eta gu tokiko-entitate bat garela, udal baten antzera.

Ikusiko da nola bukatzen den arazo hau, baina bien bitartean gure egunerokotasunean traba bat da, Lehen aukeraren baitan kontratatutako langileak enpresekin lanketan eta enpresetan eskualdean gu ezagutzera ematen lagundu behar baitzuen.

- Turismo bisita. Azahara Dominguezen bisita antolatze-aldiera, urriaren 31n izango dena, proposamen bat ekarri diegu batzarkideei. Udal-ordezkariek komentatu dute, ikusirik 2,5 ordutarako besterik ez datorrela, agian egokiagoa dela hasieran

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

bailararen aurkezpena egitea Mankomunitatean, turismoaren ikuspuntutik, eta gero Leitzarana joatea, hori baita bailarako turismo baliabiderik garrantzitsuena (Astigarragako sagardoetxea ezeztatu zuten bertan egonda dagoelako eta berdin Chillidalekurekin). Kotxeetan mugitzea proposatu da, horrela mikrobus bat alokatzea ekidingo genuelako.

- Astigarragako ordezkariak eskatu du badaukagun bidaltzea Beterri Errotuz SLren espedienteko: Pleguak, Kontratuaren zirriborroa eta udalekin sinatutako hitzarmena. Horrela, beraiek ere kontratu deribatua sinatzeko espedientetxo osatu dezakete, Kontratazio Zentralarekin gertatzen den bezala. Idazkari-Kontuhartzaileak baietz erantzun dio eta guztiei bidaliko zaiela.
- Urnietako ordezkariak eskatu du Bizi Bizikiren kontratu txikiko espedientea ere bidaltzea.
- Behatokia lantresnari dagokionez, Urnietan gaur bertan ekitaldi bat egin da, eta Andoaingo ordezkaria bertaratu da eta ondo ikusi du. Tresna bisuala eta lanerako erraza dela aipatu du. Udal teknikariek ere iradokizunak egin dituztela esan du. Plataforma hori zati batean irekia dela aipatu du eta beste zati bat ikusteko harpidetu egin behar zarela esan du.
- Azkenik, Urnietako ordezkariak 201 bulegoko planoak eta obraren diseinua egin digun arkitektoaren kontratazioaren espedientea ere eskatu du.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 13:46h zirenean. Idazkari-Kontuhartzaileak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 30/09/2024.

En primer lugar, la Presidenta somete a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el 30/09/2024. La representante de Lasarte-Oria señala que en dicho acta, en el apartado de "asistentes", figura el Alcalde de Lasarte-Oria en lugar de Nuria Fernandez. El Secretario-Interventor dice que se hará esta modificación y con ello, por unanimidad, la Junta de Gobierno da su visto bueno.

2.-Informar sobre la modificación del criterio salarial del personal contratado en las Acciones de Empleo Local (2024-2025)

La Directora da traslado del informe elaborado por la Técnica de Empleo y Formación a todos los asistentes a la reunión, para su exposición oral. En la Mesa Técnica de Empleo celebrada el 23 de abril de 2024, dentro del programa de Acciones Locales de Empleo surgió una duda/inquietud que, en el caso de los peones y oficiales, había salarios diferentes en diferentes municipios para una misma oferta de empleo, lo que generaba desigualdades. Ante el problema planteado los técnicos municipales planteaban una solución, por lo que se decidió establecer un salario mínimo para operarios y peones, con el objetivo de dignificar las condiciones laborales.

Siendo así, la Mancomunidad percibió las retribuciones de los peones y oficiales de todos los ayuntamientos y se fijó un coste mínimo de personal que se proponía desde una perspectiva comarcal y con una retribución adecuada. Este mínimo se fijó en 17.375 € para peones y 19.652,12 € para oficiales.

Sin embargo, el 1 de octubre de 2024, en el momento de preparar la oferta de trabajo de los peones, algunos técnicos municipales hicieron pública la dificultad de esta medida, ya que podía ir en contra de las políticas de cada Ayuntamiento. En consecuencia, se observa la necesidad de desistir de los criterios salariales unificados que se acordaron inicialmente. En consecuencia, se proponen las siguientes medidas:

- En la oferta de empleo se ha establecido como base el salario más bajo de todos los municipios para evitar falsas expectativas a los trabajadores.

- Si bien el importe de los convenios se ha calculado dentro del mínimo acordado, aquellos ayuntamientos que en el momento de realizar la liquidación hayan tenido un gasto inferior deberán devolver esta diferencia.

Por lo tanto, oídas estas explicaciones, todos los representantes de la reunión dan por bien visto este cambio y nadie añade nada.

3.-Modificación de créditos (créd. adicionales) para incrementar en 175.000 € las Acciones de Empleo Local (2024-2025)

El Secretario-Interventor dice que este cambio de crédito estaba pactado desde hace tiempo. Cuando se elaboraron los ALE en abril de 2024, se planteó el mismo problema que en la presentación de los presupuestos, la insuficiencia económica para llevar a cabo el proyecto. Por lo tanto, ante la falta de crédito suficiente para los ALE, se propone y acuerda un incremento a la partida de 175.000 € del Remanente de Tesorería. Y esto es lo que se consigue con este cambio de crédito.

El representante de Urnieta pregunta por el Remanente de Tesorería y el Secretario-Interventor le contesta que es difícil saber con exactitud en este momento y que esto se sabrá mejor al cierre del presupuesto. No obstante, adelanta que hay unos 630.000 €.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

El representante de Andoain pregunta si a este importe hay que descontar los 175.000 € correspondientes a esta modificación de crédito, a lo que el Secretario-Interventor responde afirmativamente.

Todos los representantes aprueban por unanimidad esta modificación de crédito.

4.-Aprobar los créditos de compromiso para asegurar créditos para el programa Hazilan + (2024-2029)

El Secretario-Interventor señala que el objeto de esta modificación de crédito es la aprobación del programa HAZILAN+, que tendrá una duración entre 2024 y 2029, y que al tratarse de un programa plurianual, su finalidad es la de comprometer/mantener los créditos requeridos en los próximos años.

El representante de Urnieta pregunta porqué en 2027 el crédito comprometido en el año es el doble y el Secretario-Interventor responde que los dos subprogramas de HAZILAN+ se duplican en este año, es decir, que en 2027 en lugar de un subprograma LORPEN y OSATU se entregarán dos por cada uno.

Por unanimidad se aprueba esta modificación de crédito.

5.- Presentar la propuesta para la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) y Plantilla Orgánica (corregir la RPT, corregir la Plantilla y la incorporación del nuevo personal)

En este punto la Presidenta pregunta a todos los representantes municipales si alguien tiene alguna duda, pregunta o sugerencia.

La representante de Lasarte-Oria manifiesta que le ha surgido duda en los antecedentes, ya que en el punto 3 se dice que se ha reducido considerablemente el número de trabajadores a contratar, pero en el punto 2 se dice que se propone hacer 4 contratos y en el punto 3 que también se propone hacer 4 (es cierto que en el punto 3 se elimina al Técnico de Turismo).

El Secretario-Interventor le dice que es cierto y que tal vez se ha confundido con el número de contrataciones que se presentaron en su día y que igual debería ser uno menos. La representante de Lasarte-Oria añade que, sin embargo, pese a bajar una contratación, no le parece una reducción significativa.

Por otra parte, el representante de Urnieta pregunta si tenemos un contrato menor en materia de sostenibilidad para realizar investigaciones sobre huella de carbono y CO2. La Directora contesta que sí. Al final, nosotros somos compañeros de camino, pero para hacer este tipo de estudios profundos y técnicos tenemos que recurrir a profesionales.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Por otro lado, en relación a los informes enviados para este punto, la Directora añade que los datos son los recogidos hasta primeros de octubre y que por el momento se ha trabajado más en Urnieta y Lasarte-Oria en torno a las empresas, por ejemplo, que en Andoain, ya que a principios de año tuvimos que compaginar el trabajo con el técnico municipal de Andoain y al final eran ellos los que más andaban detrás de las empresas de Andoain. Por tanto, el análisis de los datos en diciembre sería más completo porque será más equitativo para todos los Ayuntamientos.

El Secretario-Interventor recuerda que este punto se trasladará a la Asamblea General para su aprobación, por lo que es conveniente que en este momento y aquí, en la Junta de Gobierno, se planteen inquietudes, dudas y preguntas para llevar el tema aclarado a la Asamblea General.

La Presidenta añade que en este punto se han remitido todos los informes (de Dirección, jurídico y de fiscalización), por lo que se ha tenido en cuenta lo dicho en el correo remitido por la representante del Ayuntamiento de Lasarte-Oria antes del verano, haciendo referencia a la necesidad de estos informes.

La representante de Lasarte-Oria dice que ella tiene que hablar con su interventor/ a sobre la consignación de crédito del capítulo 1, ya que a ella siempre le han dicho que tiene que haber crédito suficiente desde el principio y que en mi informe no se dice eso. Añade el Secretario-Interventor, por resumir, que lo que normalmente aparece en el informe de fiscalización es que para que se ejecute efectivamente el gasto debe existir crédito suficiente en el capítulo. Es decir, si nuestra Mancomunidad es realmente consciente de que se van a llevar a cabo X contrataciones en un año, sí tiene que haber crédito suficiente para esas contrataciones. Y que, por cualquier circunstancia, si a lo largo del año se realiza una nueva contratación no prevista inicialmente, en el informe de fiscalización de ese momento se pondrá de manifiesto la existencia o no de crédito suficiente. Por último, subraya que en esta Mancomunidad, al igual que en otras Administraciones Públicas, desde su creación ha seguido este criterio, es decir, que en ejercicios anteriores no se ha dispuesto de crédito suficiente para cubrir la totalidad de los puestos que figuraban en la Relación de Puestos de Trabajo, ya que era sabido que no se iban a ejecutar en su totalidad.

A continuación, toma la palabra el representante de Urnieta, quien, en primer lugar, agradece a la directora los datos que él había solicitado en su día. Por otra parte, pregunta cómo va a ser la estabilización del personal actual, a lo que el Secretario-Interventor responde que este año saldrá la Oferta Pública de Empleo (OPE) y que desde entonces tendremos tres años para ejecutar esa OPE (para comenzar con los procesos selectivos). Por último, el representante de Urnieta pregunta si existe algún cronograma sobre las contrataciones de personal que se plantean y la Presidenta le saca un documento que habíamos utilizado en una reunión anterior. No obstante, la directora añade que lo revisaremos y, en su caso, lo haremos llegar actualizado.

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

El Secretario-Interventor pregunta a los representantes municipales cómo ven este tema y si podrían tomar alguna decisión para la próxima reunión (si no hay cambios, que será el 28 de octubre). El representante de Urnieta comenta que están trabajando a nivel interno con este tema y espera que traiga una decisión definitiva para la próxima Junta de Gobierno. La representante de Lasarte-Oria manifiesta lo mismo.

6.-Aprobar el convenio de colaboración a firmar entre la Mancomunidad y los Ayuntamientos para llevar a cabo el programa ALE 2024-2025.

Toma la palabra la representante de Lasarte-Oria que expone en la reunión lo dicho en el email enviado el pasado viernes. Se queja de dos cosas:

- No le parece bien desde el punto de vista procedimental remitir a los alcaldes a firmar el convenio sin la previa autorización de los técnicos municipales y de la Junta de Gobierno.

- Que el convenio que se ha enviado a firmar para Lasarte-Oria no es un convenio de colaboración sino una encomienda de gestión. Dicen en varias ocasiones que no van a firmar una nueva encomienda de gestión porque la Mancomunidad está creada y tiene que funcionar por sí misma, y recalca que así lo han dicho los secretarios actuales y anteriores. Además, solicita los documentos de haber seguido el procedimiento que se describe en el artículo 50 de la ley 40/2015 para la gestión de un convenio de colaboración.

Toma la palabra el representante de Astigarraga para manifestar que, aunque él no sea jurista, no le parece que el convenio que tenemos para firmar sea una encomienda de gestión, sino un convenio de colaboración. Además, señala que lo ha contrastado y comentado con su secretario/a municipal y que así lo ha planteado. En definitiva, se trata de un convenio para la ejecución del programa ALE, ya que la Mancomunidad recibe el dinero desde LANBIDE y es la propia Mancomunidad la que se encarga de todos los trabajos (presentación del proyecto en LANBIDE, de su relación con ellos y de la realización de todos los trámites administrativos con ellos, de la gestión de las ofertas de trabajo y de la realización de los procesos de selección con los candidatos, de la selección y justificación de los candidatos definitivos, de la obtención y gestión de la formación a recibir por el personal contratado y de hacer frente a cualquier incidencia). La única función que tienen que hacer los ayuntamientos es la contratación de personal, pero porque no hay otra alternativa, porque la Mancomunidad no puede contratar y luego poner a trabajar en el resto de municipios, porque es una cesión ilegal de trabajadores. Por lo tanto, lo único que debe hacer el personal municipal es dar de alta al personal, lo que no considera una encomienda de gestión.

La representante de Lasarte-Oria reitera que toda la gestión de las ALE corresponde a la Mancomunidad, ya que la Mancomunidad está creada y dispone de medios y

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

sus secretarios consideran que es una encomienda de gestión y no un convenio de colaboración.

Toma la palabra el Secretario-Interventor que responde a lo manifestado inicialmente por la representante de Lasarte-Oria:

- En cuanto al procedimiento, cuando los técnicos municipales dieron el visto bueno a la remisión del convenio a cada uno de los ayuntamientos, al andar justos de tiempo, se envió con tiempo suficiente para que pudieran revisarlo y, en su caso, realizar alguna sugerencia, o bien firmarlo. Sin embargo, es cierto que no se ha esperado a que la Junta de Gobierno dé el visto bueno en esta reunión antes de remitirla a los ayuntamientos. Por otra parte, explica la razón por la que el convenio se ha derivado directamente a los alcaldes, la cual es que la persona que tiene que firmar es el Alcalde, y antes de hacerlo pensábamos que lo iba a compartir o comparar con las personas que les corresponde dentro del Ayuntamiento. Sin embargo, se ha observado que este procedimiento no funciona correctamente, por lo que ya hemos tomado la decisión de modificar el procedimiento y que a partir de ahora este tipo de asuntos se canalizarán a través de SIR (registro electrónico), de manera que cada ayuntamiento dará los pasos a seguir al llegar a su registro electrónico antes de firmar nada. No obstante, subraya que «nunca ha sido nuestra intención que el alcalde firme sin compartir ni comparar el documento con nadie, pero, le hemos buscado una solución para solucionar este problema».

- En relación a la encomienda de gestión manifiesta su total conformidad con lo manifestado por el representante de Astigarraga. Sobre todo, porque no entendemos que por eficiencia o falta de medios técnicos solicitemos a un ayuntamiento que haga algo que es nuestra competencia. En definitiva, como ya se ha dicho, la única función de los ayuntamientos es la contratación de personal, ya que de lo contrario incurriremos en una cesión ilegal de trabajadores, ya que no puede un trabajador nuestro trabajar en otro municipio a su cargo y a su disposición. En contra de ello, entendemos que se trata de una colaboración entre administraciones públicas, que es la Mancomunidad la que recibe el dinero de LANBIDE para posteriormente entregar a los ayuntamientos para que ellos realicen las contrataciones de personal. Por otra parte, les ha dicho que les dará traslado del expediente que solicita y que, si lo necesitan, lo harán también en relación con este nuevo informe jurídico concreto.

La Directora añade que tendremos que contratar al personal a finales de octubre, ya que la formación con EAGI comenzará a principios de noviembre, por lo que andamos justo de tiempo. Hay que recordar que si se necesita ejecutar la encomienda de gestión este expediente debe pasar por el Pleno, lo que puede alargar mucho el procedimiento. Añade que el 22 de octubre haremos entrevistas con los candidatos que han pasado el primer filtro.

El Secretario-Interventor añade que la Mancomunidad tiene que empezar a trabajar, es decir, entrevistar a los candidatos, etc. Una vez firmado el convenio con los

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

Ayuntamientos y no antes. Por lo tanto, si no firmamos el convenio, no podremos empezar a trabajar.

La Directora explica el cronograma del proyecto para conocer las consecuencias que se pueden producir de cara a los retrasos: el 22 de octubre una explicación general, el 4 de noviembre se inicia la formación (las fechas no se pueden cambiar porque ha costado mucho encontrar espacio y formador) y se van a hacer entrevistas y llamadas. Añade que esto va a acarrear problemas con la evolución del programa porque hay poco tiempo.

7.-Informar de que se pondrán en marcha las elecciones para elegir el representante de los trabajadores (delegado de personal) de la Mancomunidad.

El Secretario-Interventor les informa que, dado que nuestra Mancomunidad cuenta con más de 6 trabajadores, hemos puesto en marcha el proceso electoral para la elección de la representación del personal. El pasado 7 de octubre se dio entrada en el Departamento de Economía, Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco al registro correspondiente, estando prevista la constitución de la Mesa Electoral el 8 de noviembre de 2024.

8.-Ruegos, preguntas y propuestas.

- La Directora recuerda que el próximo lunes están llamados a la Mesa Político-Técnica de Sostenibilidad, en Andoain.

- Lehen Aukera. La Directora explica que estamos teniendo problemas con LANBI-DE para contratar a un trabajador a través del programa Lehen Aukera porque tenemos la condición de Mancomunidad. Estamos en un debate con ellos y aún no se ha aclarado el tema (incluimos un escrito). En efecto, en la resolución de convocatoria de Lehen Aukera, el artículo 4.1.b) establece como uno de los requisitos para participar en la misma "b) No hallarse participada directa o indirectamente en más de un 50% por una o varias Administraciones Públicas". Tratamos de argumentar que esto está más para las empresas públicas y que nosotros somos una entidad local, como un ayuntamiento.

Ya se verá cómo termina este problema, pero mientras tanto es un obstáculo en nuestro día a día, ya que él/ella dentro de Lehen Aukera tenía que ayudar a dar a conocer a los trabajadores contratados con las empresas en el trabajo y en las empresas en la comarca.

- Visita turística. De cara a organizar la visita de Azahara Dominguez, que tendrá lugar el próximo 31 de octubre, se ha trasladado una propuesta a los junteros y junteras. Los representantes municipales comentan que, ya que la visita durará sólo 2,5 horas, quizá sea más adecuado hacer una presentación inicial del valle en la Mancomunidad desde

Gobernu Batzarraren Akta

2024ko urriaren 14a

el punto de vista turístico y luego ir a Leitzarán, el recurso turístico más importante del valle (la sidrería de Astigarraga fue rechazada por haber sido visitada anteriormente y pasa lo mismo con Chillidaleku). Se propone moverse en coches porque así evitaríamos alquilar un microbús.

- El representante de Astigarraga solicita que se le remitamos el expediente de Beterri Errotuz, S.L.: Pliegos, borrador de Contrato y convenio firmado con los Ayuntamientos. De esta forma, ellos también pueden completar el expediente para la firma del contrato derivado, como ocurre con la Central de Contratación. El Secretario-Interventor responde que sí y que se enviará a todos.

- El representante de Urnieta solicita la remisión del expediente del contrato menor de Bizi Biziki.

- En cuanto a la herramienta de trabajo Behatokia, hoy mismo se ha celebrado un acto en Urnieta al que ha asistido el representante de Andoain que dado su visto bueno. Comenta que es una herramienta visual y fácil de trabajar. Dice que los técnicos municipales también han hecho sugerencias. Señala que esta plataforma es parcialmente abierta y que para ver otra parte tienes que suscribirte.

- Por último, el representante de Urnieta solicita el expediente del arquitecto que nos ha realizado los planos de la oficina 201 y el diseño de la obra.

Y sin más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión ordinaria siendo las 13:46 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento relativo al período de sesiones, con la lectura y visto bueno del Presidente, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Local. Y de cuanto antecede, doy fe.

O.E. / Vº Bº

La Presidenta



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024BG010012-akta/akta (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)